

DONOSTIA 1813

Kai Arripe
elkartea

ISILDUTAKO SARRASKIA

**DONOSTIAN ZEUDEN
EMAKUME GEHIENAK
BORTXATUAK
IZAN ZIREN**

1.600 HILDAKO

**HIRIA SUNTSITU ETA
URTE ASKOTARAKO
MISERIARA
KONDENATU ZUTEN**



1813-1814 TIFUS IZURRITEA DONOSTIAN

DONOSTIA SUTAN 1813- 2021

Azken urte hauetan 1813an Donostian gertatu zen sarraskia zer izan zen argitzen joan gara. Zenbait gertakizun ahaztuta zeudenak argitaratu ditugu. Hala nola, Udaletxeko artxiboetan zeuden sarraskiaren gainean egindako testigantzak, zeinak argitaratuak izan ziren bai euskaraz, bai gazteleraz.

2013an, Donostiako sarraskiaren berrehungarren urteurrenean, San Telmo museoko areto nagusian hitzaldi bat eman zuen Adrian Hugo Llorente Aginagalde donostiar medikuak. Hitzaldi horretan aditzera eman zuen sarraskiaren ondorengo hilabeteetan, batez ere, 1814 urtearen hasieran 1000 pertsonatik gora hil zirela Donostia inguruan tifus gaitzak jota.

Hau da, sarraskiagatik (Suteak, arpilaketak, eraiketak, bortxaketak, eta abar) hiribilduan gertatu zenaz gain ondorengo hilabeteetan, alegia, 1000 hildako gertatu ziren. Eta batez ere, hiribildutik at, inguruko etxe, baserri eta zaurituak zaintzeko prestatu zituzten gunee-tan eman ziren tifusak hildako gehien.

Gertakizun horren berri oso modu akademiakoan Adrian Hugo Llorente Aginagalde medikuak San Telmoko aretoan 2013urtean eman zuen hitzaldi baten bidez. Mediku ho-

nek frogatutzat ematen zuen 1814. urte horretan zehar tifus epidemia izugarri horrek mila hildako eragin zituela Donostian, eta batez ere, Donostia inguruko baserri eta etxeetan.

“
...gerrak
berek
dakar
izurritea.
”

COVID 19 Pandemia garaian gauden honetan azpimarragarria da lehen ere antzeko pandemia edo izurriteak gertatu izana bizi garen bazter hauetan. Eta ez bazter hauetan, soilik, baizik eta munduan zeharreko bazter anitzetan (Espainia, Frantzia, Errusia, e.a.). Halaber, garai hartako osasun egoerari buruz hitz egiterakoan, aipatu izan da kolera izurritea ere sortu zela. Izan ere, Ibaeta inguruan zeuden padura edo ur geldiek kolera eragin zutela. Informazio hori ere egia izan daiteke, baina dirudenez ez zen izan kolera, baizik eta

tifusa Donostia aldean zabaldu zen izurritea. 1814ko neguan izan ziren heriotza gehien, eta neguan eltxoak desagertzen dira. Kolera, hain zuzen, eltxoen bidez heltzen da pertsonengana, beraz, ez da negu horretan kole-rarik. Negu horretan tifusa izan zen hedatu zena.

Tifusa arkakusoen, zorrien eta antzeko beste zomoroen bidez iristen da gizakiarengana, soinean arropetan eramaten ditugun zomoroen bidez. Eta horrela hedatu zen horrenbeste heriotza eragin zuen izurritea. Izurrite hau dirudenez, 1795ean Konbentzioko guda garaitik hasi zen zabalitzen frantses soldaduen artean. Soldaduek euren arropetan zeramatzen arkakuso eta zorri horien bidez zabaldu zen izurritea. Donostian ez ezik inguruetan ere zabaldu zen.

Adrian Hugo Llorente Aginagalde mediku honek egin duen ikerketaren arabera Donostiako sarraskitik bizirik atera zirenek ez omen zuten zabaldu gaitza, izan ere, hauek ia-ia arroparik gabe atera ziren hiritik. Hiribilduan ez baizik inguruko baserrietan, zaurituak artatzeko prestatu zituzten etxeetan edo eraikinetan izan omen zen gaixorik gehien.

Bukatze A. H. Llorente Aginagalde esaten duen bezala gerrak berekin dakar izurritea.

Biktimen testigantzak

Setioa jasan baina bizirik ateratzea lortu zutenei, Udalak horrela aginduta, testigantza hartu zitzaizen ondorengo egunetan, “Mundu osoak jakin zezan zer gertatu zen”.

“Soldaduak ikustean, leihora atera ziren herritarrak, pozkidaz, bibaka eta txaloka hartzera, baina militarrek, haserre bizian, balazoka agurtu zuten herritarra...”

Don Juan Angel de Errasquin

“Ikaragarria izan zen gaua: sufritzen ari ziren pertsonen aienea, beste gauzarik ez zen aditu gau osoan..”

“... herritar asko eta asko zihoazen herritik kanpora, noraezean, erdi biluzik, zaurituta eta jipoituta eta jende asko ari da egunero hiltzen, hartutako jipoi, zauri eta tratu txarren ondorioz.”

“Soldaduek emakumeak lehendabizi bortxatu, gero jipoitu, ondoren zauritu eta azkenean hil egiten zituzten, ankerkeria asetzeko..”

Don José Marta de Estibaús

“Ia ez zegoen bortxatu gabeko emakumerik: militarren bistatik aparte, komun zuloetan gorde edo teilatuetan geratu ez zirenak, biolatuak izan ziren...”

Don Miguel Ygnacio de Espilla



OROIT ETA OHORA

Trunboi .

DOIÑUA: Pasaiaiko herritik dator notizia

I

Gipuzkuak nahi zuen independentzia aintzina zen bezala babesle Frantzia, Españaik ondoren ordena bizia Donostia zezaten utzi eratxia.

II

Horri ez zion egin Castañosek uko tropa mardula zuen bere aginduko, gogor ekin zioten han sartu orduko batzuk ez dute, baina, hori aipatuko.

III

Zenbat andere, gizon han akabatuak! Zenbat janari, pitxi, ondasun ostuak, bostehun etxe, berriz, suak suntsituak ta sarraskigileak heroitzat hartuak!!

IV

Bitxia suntsiketa ospatzeko era garaipena bailitzan handiki gainera, Udalak behar luke aldatu jarrera ezta berandu eta jotzeko atzera.

V

Bertakoekin zakar Frantsesekin bigun lekukoak esanda mesede egin zigun, zenbaitek nahiko luke gera ledin ilun eskerrak orain askok gehiago dakigun.

VI


Hile bira hirian hirurehun lagun bedratzi mila aurrez gogora dezagun, ta izurriak jota ez jan ez osasun pentsa festatarako zer gogo daukagun.

VII

Mila eta seirehun denera hildako gehienak gaixotuak tifusa zen gako, goseak, hotzak asko txiro zirelako ezin da hau ahaztu larria dalako.

VIII

Donostiak merezi du askoz gehiago utzi tanbor hotsak ta begira harago noizko hildako haiei, behar dutelako, oroigarri duina euskeraz nahiago?



Sarraskiaren kronologia.

■ DONOSTIA SUTAN 1813- 2021

- 1789.-

Frantziako iraultza

-1793.- (Urtarrila)

Luis XVI (Borbón) Frantziako erregeari (Jaungoikoaren nahiaz) Parisen lepoa moztu zioten.

-1794.-

Frantziako iraultzaren hedapena Europan zehar

-1794.- (Abuztua).

Frantziako iraultza Gipuzkoara heldu zen (ehun mila soldadu), Espainako armadak ihes egin zuen Ebro hegoalderaino. Mitxelena, Donostiako alkatea, beste aukerarik gabe hiriko giltzak entregatu zituen.

-1795.-

Gipuzkoako Batzar Nagusiak Getarian bildu eta 1200 baino lehenago zen bezela Gipuzkoako independentzia aldarrikatu zuten, Frantzia iraultzailera batuz.

-1807-1813.-

Garai honetan Frantziako iraultza, Ilustrazioa, "frantsesiale" eta Frantziako armadaren e eraginpean Penintsulan hedatuz doa.

-1808.-

Europar, Ingalterrak oraindik okupatu gabeko Portugal eta Espainako erreakzioanrioeekin batera, Napoleonen aurka borrokatzeko aliantza bat egiten dute eta horrela frantsesin inbasioari aurre egin. Wellington dukea Lisboan lehorretatu eta Jose Bonapartearen armadari eraso egin zion.

-1808-1813.-


Garai honetan aliatuek (ingelesak, portugesak eta espainolak) Frantziako armadak atzera egin dezan lortu zuten, Penintsula berkonkistatu.

-1812.-

Españaik Cadizeko konstituzioa idazten du, "La Pepa" deiturikoa. Jatorrizko Euskal Foruak ezabatuz eta eskabltza mantenduz.

-1813ko Maiatzak 20

Wellingtonek Gasteiz konkistatu eta bertako semea den Alava Generalak, aliatuen armada irian ez sartzea eta sakeoa ekiditzea lortu zuen. Data honetatik aurrera Castaños general espainarrak 1812ko Cadizeko konstituzioa imosatu zuen, Foruak ezabatu zituen, baita sablearen indarrak Deban egin zuen moduan (1813-7-31) Gipuzkoako Batzar Nagusien aurrean.



- 1813ko uztailak 1.

Aliatuak Donostiara iritsi eta setioari hasiera emanez. Lehenengo eraso 1813-7-25ean egin zuten, arrakastarik gabe. Ingalterako eta Portugaleko soldadu batzuk atxilotuak izan ziren eta Castaños generalak donostiarrak erahiltzeko eta hiria erretzeko agindua emana duela aitortzen dute.

-1813ko abuztuak 31.-

Aliatuak Donostian sartu ziren; erahiltetak, bortxaketak, lapurretak eta etxeen suntsiketa hirian hedatuz. Frantziako tropak gazteluan babestu ziren. 500 etxe erre zituzten banan banan. Egun gutxierara Frantziako armada errenditu egin zen eta beren arma guztiekin hiria utzi zuten desfilatzen lasai askoan.



- 1813ko Irailak 19.-

Espainako agintariek Donostiako Udaletxeko ordezkariak San Bizente elizan bildu eta bertan Cadizeko konstituzioa sinarazten diete.

-1813-9-8-

Zubietako Batzarrak Donostia berrekitzea erabaki zuten.

- 1813-II-10.-

Donostian 9.000 biztanleetatik 300 pertsona geratu ziren.

- 1814.-

Udalak 1.600 hildako zenbatu zituen, gehienak tifus izurrite baten eraginez. Udalak bizirik atera zirenen testigantzak batzea erabaki zuen. 79 bildu ziren.